

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Hizkuntza eta Komunikazio Trebetasunak I	141208	2024-2025
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
Lehen Hezkuntza Gradua	1	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizkoa	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Marije Anakabe Onaindia mjanakabe@bam.edu.es Maite Garcia Ruiz mgarcia@bam.edu.es		

Justifikazioa

Gizakien jarduera batez ere kooperazioan oinarritzen da. Kooperazio hori hitzari esker gertatzen da, ahoz zein idatziz. Jarduera komunikatibo horiek, aldatu egiten dira asmoen arabera eta hartzailen arabera. Zenbat ekintza sozial horrenbeste jarduera komunikatibo eta horrenbeste testu; izan ere, testuak jarduera komunikatiboen gauzapena dira eta testu ugaritasun mugagabea giza ekintza eta asmo aniztasunaren irudi da. Bestalde, eremu sozial bakoitzak baditu bere beharrezko komunikatiboak. Kasu honetan irakaskuntzaren eremuan gaude eta irakasle izango direnen behar komunikatiboei begira, hain zuzen ere.

Ikasgai honetan lehen hezkuntzako irakasleek behar dituzten abilezia komunikatiboak landuko dira. Horretarako eremu honetan ohikoak diren testu generoak aukeratu dira eta horiek sortzeko hartu behar diren erabakiak eta baliabideak ezagutu eta euren erabileran entrenatuko dira ikasleak.

Horrez gainera, ikasgai honetan lengoaiaren funtzionamenduaren marko teorikoa landuko da testu genero desberdinen ezaugarriak aztertu eta ezagutzeko. Era berean, ikasgai honen bidez Lehen Hezkuntzako umeek euren produkzioetan dituzten abileziak eta zailtasunak baloratzeko irizpideak lortuko dituzte ikasleak.

Aurrebaldintzak

Ez dago.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak:

- GO: AHOZKO KOMUNIKAZIOA. 2. menderatze maila: Taldean hitza erraz hartzea, segurtasuna adieraztea eta diskurtsoa eskakizun formaletara egokitzea.**

Berariazko gaitasuna:

- BG5: Komunikazio hizkuntza egokitasunez eta zuzentasunez darabil irakaskuntza jardueran eta lehen hezkuntzako haurren behar komunikatiboak bereizi eta adierazten ditu.**



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaiari



GIH 4 – Kalitatezko hezkuntza. Kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzako aukerak bultzatzea guztientzat.

1.2.4 "Kalitatezko hezkuntza" Ikaskuntza helburu sozioemotionala:

Ikaslea gai da hezkuntzaren berezko balioaz jabetzeko eta bere garapenerako dituen hezkuntza beharrak aztertu eta identifikatzeko.

Edukiak

1. Diskurtsoaren funtzionamendua: eragiketa eta abilezia diskurtsiboak.
2. Ginebrako testu tipologia: azalpena, deskribapena, argudiaketa, narrazioa, errelatoa eta testu injuntiboak.
3. Lehen Hezkuntzako ikasleen produkzioen azterketa.
4. Ahozko komunikazioa lantzeko lana(k) prestatzeko edukiak..

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikaslearen esperientziak azalerratu: ikaslearen aurrezagutzak mobilizatu eta esperientziak azalerratzeko, ikasleen arteko eta irakasle-ikasleen arteko interakzio estrategia bultzatuko da. Horrez gainera, ikasgaiari lantzen diren testu genero desberdinen hasierako produkzioak egingo dira, ahozkoak zein idatziak.

Behaketa gidatua: Testu eredu desberdinen behaketa gidatua (txantiloia edo galdetegiarekin) eginez, testu azterketa egingo dute ikasleek, bai testu arketipoak, zein haurren testuak.

Kontzeptualizazioa: estrategia hau modu desberdinetan garatuko da, edukiaren arabera. Honako hauek izango dira jarduerak nagusiak: gelan egiten diren jarduerak eta ariketa guztiek izango dute ondoren hausnarketa eta teorizazioa; irakurketa gidatua, ondoren hausnartuz eta teorizatuz; testuen behaketaren ondoren testu mota desberdinak eraikitzeko abilezien sintesiak egiten trebatuko dira ikasleak; ikasleek euren produkzioetan hartutako erabakiak arrazoitu eta justifikatuko dituzte.

Esperimentazio aktiboa: estrategia hau honelako jardueren bidez garatuko da: ikasleak testuen produkzioan trebatuko dira; lehen hezkuntzako haurren produkzioak aztertu eta baloratuko dituzte; testuak ekoizteko abilezien entrenamendua egingo dute.

Ebaluazioa

Ikasgaiaren elementu hauen bidez ebaluatuko da:

- AZTERKETA: %30
- AHOZKO KOMUNIKAZIOA EBALUATZEKO LANA(K): %30
- UMEEN TESTUEN AZTERKETA: %30
- GELAKO LANAK: %10

Zerrendatutako ebaluazio item bakoitza gainditzea ezinbestekoa da ikasgaiari gainditzeko. Ohiko deialditik ez-ohikora gainditutako itemen nota gordeko da, baina urte batetik bestera ez da notarik gordeko eta ikasgaiari osorik errepikatu beharko da.

Adimen artifizialaren erabilera:

Adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukien erabilera ikasgaiari zeregin eta lanen orientabide espezifikoen arautuko da. Zer tresna eta nola erabili daitezkeen adierazten ez den bitartean, ez dago baimenduta horiek erabiltzea.

Dokumentazioa

GELAKO DOKUMENTAZIOA

1. Ahozko komunikazioa lantzeko sekuentzia didaktikoa(k).
2. Testu ereduak: arketipoak eta haurrenak.
3. Testu azterketarako plantillak.
4. Irakurketa artikulak eta apunteak.
5. ALUD plataformako jarduerak.

BIBLIOGRAFIA:

- Adam, J.M. (1997). Los textos: heterogeneidad y complejidad. In F.J. Cantero, A. Mendoza eta C. Romea (edk), *Didáctica de la lengua y la literatura para una sociedad plurilingüe del siglo XXI* (3-12.or.). Sociedad Española de Didáctica de la lengua y la Literatura, Universitat de Barcelona.
- Adam, J.M. eta Revaz, F. (1996). (Proto)Tipos: la estructura de la composición en los textos. *Textos*, 10, 9-30.
- Álvarez, T. (2001). *Textos expositivo-explicativos y argumentativos*. Octaedro.
- Bassols, M. (2003) *Modelos textuales teoría y práctica*. Octaedro.
- Battaner, P., Atienza, E., Lopez, C. eta Pujol, M. (1997). Características lingüísticas y discursivas del texto expositivo. *Artículos de Didáctica de la Lengua i de la Literatura*, 13, 11-30.
- Bronckart, J.P. (2004). *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje.
- Dolz, J. eta Schneuwly, B. (1997). Géneros y progresión en expresión oral y escrita. *Textos*, 11, 77-98.
- Dolz, J. eta Vilà, M. (Koord.) (1997). L'oral formal. *Artículos*, 12.
- Idiazabal, I. (1990). *Hizkuntzaren psikopedagogia. Testu motak. Funtzionamendua eta didaktika*. Labayru.
- Larringan, L. M. (1998). Koherentzia, kohesioa eta konexioa nozioen egoera. In I. Idiazabal eta L.M. Larringan (Koor.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: baliabideak hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza* (11-46.or.), Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Larringan, L.M. (2009). Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza. *Euskera*, 54, 2-1 zatia, 505-539.
- Salkie, R. (1997). *Text and Discourse Analysis*. Routledge.
- Thornbury, S. (2005). *Beyond the sentence: introducing discourse analysis*. MacMillan Education.